



Beasaingo CAF trengintza enpresaren akziodunen batzarraren aurrean protesta egin dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/06/2024

Mobilizazioan enpresa honek palestinar lurren okupazioan eta kolonizazioan duen erantzukizuna salatu dute eta Jerusalemgo tren arinaren proiektua bertan behera uztea exigitu diote.

Atzo, ekainak 15, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako hamarnaka pertsona batu ziren Beasainen, Palestinarekin Elkartasunak egindako dieldiari erantzunez, eta hauek CAF trengintza enpresaren akziodunen batzarraren aurrean protesta egin zuten. Mobilizazioan enpresa honek palestinar lurren okupazioan eta kolonizazioan duen erantzukizuna salatu eta CAFen zuzendaritzari Jerusalemgo tren arinaren proiektua bertan behera utzi eta behin betiko Palestinatik alde egitearen alde ohiukatu zuten. Era berean CAF enpresari apartheidaren tren proiektua utz dezan exigitu zioten, izan ere, "proiektu kriminal hori alde batera utzi duten enpresen bidea hartu" beharko lukela argudiatu du plataformak. Jarraian "helburu hau lortzeko, indar eta ahaleginak handitu behar ditugu, kaleetan, fabrika barrenetan, bulegoetan, unibertsitatean, apartheidaren tren hau geldiarazteko" azaldu zuten eta bukatzeko "Euskal Herrian sionismoaren adierazpen guztien aurka borrokatzen eta erresistentziarako eskubide osoa duen palestinar herriari gure elkartasun aktiboa adierazten jarraitzera" dei egin zuten.

<https://eh.lahaine.org/beasaingo-caf-trengintza-enpresaren-akziodunen>